

UDALEKO INFORMATIKA-EKIPOAK BERRIZTU DIRENEAN KENDUTAKO MONITOREAK DOAN EMATEKO BALDINTZAK

1.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da udalak informatika-ekipoak berriztu dituenean kendutako monitorea doan ematea.

Udalak dituen monitorea doan emateko lote edo sorta batzuk egingo ditu.

Sortak emateko beste talderik edo eskaerarik ez balego, pertsona fisikoei emango zaie; kasu horretan monitorea bana (ez sorta bana) emango zaie.

2.- Izaera eta baldintzak

Emango denaren ezaugarriak:

- Sortak guztira: 6
- Sorta bakoitzaren monitorea-kopurua: 5
- Monitorea multimarka dira (bakoitza marka batekoa izan daiteke).
- Monitorea hainbat neurritakoak dira, eta 14 hazbetetik 19 hazbetera joan daitezke.
- Monitorea guztiak elektrizitate-kablez eta ordenagailura konektatzeko VGA kablez entregatuko dira.

3- Pertsona edo entitate eskatzaileak

Eskaera aurkeztu ahal izango dute Bergaran erroldatutako pertsona fisikoak, eta baita irabazi asmorik gabekoak izanda Bergaran egoitza duten pertsona juridikoek edo kultur edo kirol elkarteek, herri-taldeek edo ongintzako elkarteek ere (ikastetxeak ere onartuko dira).

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera, horretarako prestatu den orria beteta eta baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela adieraziz.

Eskatzailea Bergarako Udalarekiko betebeharretan egunean egon beharko da.

4- Eskaerak

Interesa duten pertsonak edo taldeak eskaera aurkeztu beharko dute, derrigor, plegu honi erantzen zaion inprimakia erabilita (F0169B).

Eskaerarekin batera, honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- Eskatzailearen identifikazio-agiria (IFZ, NAN, AIZ –Atzeritarren Identifikazio Zenbakia–, pasaporte).
- Elkartearen edo pertsona juridikoaren estatutuak edo irabazi asmorik ez duela egiaztatzen duen beste edozein dokumentu edo **erantzukizunpeko adierazpena**.

- Interesa duen pertsonaren ordezkartzan beste pertsona batek egiten badu eskaera, ordezkartza-inprimakia (F0136), behar bezala beteta eta sinatuta, bertan zehazten den dokumentazioarekin batera.

Eskaera aurkezterakoan ulertuko da plegu honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

5- Eskaerak aurkezteko lekua eta epea

Eskaerak aurkeztu beharko dira Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean –udaletxeko B@Z bulegoan bertaratuta, San Martin Agirre plaza, 1ean– edo telematikoki –udalaren web-orriko “Tramiteak” ataletik–, baina betiere 2021eko otsailaren 25era arteko epean (otsailaren 25a barne).

Ezinbestekoa izango da telefono-zenbaki bat eta korreo elektronikoko bat ematea.

6. Adjudikazioa egiteko prozedura

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, udalak egiaztatuko du eskatzaileak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela eta baldintzak betetzen dituela. Halaber, ofizioz egiaztatuko du:

- Pertsona fisikoak udalerrian erroldatuta daudela.
- Eskaera egin dutenak egunean daudela Bergarako Udalarekiko betebeharretan.

2021eko martxoaren 2an web-orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda, eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira 2021eko martxoaren 3ko 10:00ak arte.

Erreklamazioak aztertu ondoren, zozketan parte hartzeko onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da 2021eko martxoaren 5eko 14:00etatik aurrera.

Zozketa ekitaldi publikoan egingo da, udaletxean, 2021eko martxoaren 7an, 9:00etan.

Zozketaren emaitza kontuan hartuta, lote bana adjudikatuko da.

Halaber, adjudikatu gabe gelditu diren loteak pertsona fisikoen artean zozketatuko dira, kasu honetan monitore bana adjudikatuko delarik.

Eta soberan gelditzen direnekin, berriro bigarren aldiz egingo da, loteak lehenbizi eta banaka gero.

2021eko martxoa amaiera bitartean sortu daitezkeen loteen adjudikazioa zozketaren ondorioz sortutako zerrendan hurrena daudenei egingo zaie.

Adjudikazio-hartzaileei emaitzaren berri emango zaie e-mail bat bidalita, bakoitzak emandako korreo elektronikora. Bertan jakinaraziko zaie zein sorta adjudikatzen zaien eta sorta hori erretiratzeko epea.

Oharra: Zozketa bidez jasoko diren monitore hauek ezingo dira inolaz ere saldu edo prezioaren truke inorenganatu. Interesekoak ez direnak udalari bueltatuko zaizkio.

Jakinarazpena jaso izanaren agiriak, deialdi honetara aurkeztutako eskaerarekin eta plegu honekin batera, kontratu-izaera izango du.

CONDICIONES PARA LA ENTREGA GRATUITA DE MONITORES QUE HAN SIDO RETIRADOS POR RENOVACIÓN DE LOS EQUIPOS INFORMÁTICOS MUNICIPALES

1.- Objeto de la convocatoria

Constituye objeto de la presente convocatoria la entrega gratuita de los monitores que han sido retirados al haberse renovado en el ayuntamiento los equipos informáticos.

El ayuntamiento, para la entrega gratuita de sus monitores, confeccionará una serie de lotes.

En caso de que no hubiera agrupaciones o solicitudes para la entrega de los lotes, los monitores se entregarán a personas físicas, pero serán uno por persona (y no por lotes).

2.- Naturaleza y condiciones

Características del material entregado:

- Lotes en total: 6
- Número de monitores por lote: 5
- Los monitores son multimarca (cada uno puede ser de una marca distinta).
- Los monitores son de distintos tamaños, desde 14 hasta 19 pulgadas.
- Todos los monitores se entregarán con cable de electricidad y cable VGA de conexión al ordenador.

3.- Personas o entidades solicitantes

Podrán presentar la solicitud las personas físicas empadronadas en Bergara, así como las personas jurídicas sin ánimo de lucro con sede en el municipio como asociaciones culturales o deportivas, agrupaciones populares o entidades de beneficencia (se admitirán así mismo a los centros docentes).

La solicitud deberá ir firmada por una persona mayor de edad y con plena capacidad de obrar, cumplimentando el impreso elaborado al efecto y manifestando que conocen todos los requisitos recogidos en los presentes pliegos de condiciones y que están dispuestos a cumplirlos.

La persona o entidad solicitante deberá estar al corriente en sus obligaciones para con el Ayuntamiento de Bergara.

4- Solicitudes

Las personas o agrupaciones interesadas deberán presentar su solicitud utilizando necesariamente el impreso que se adjunta a este pliego (F0169B).

Junto con la solicitud, deberán presentar los siguientes documentos:

- Documento de identificación de la persona o entidad solicitante (NIF, DNI, NIE – Número de Identificación de Extranjero–, pasaporte).
- Los estatutos de la asociación o persona jurídica o cualquier otro documento que acredite que carecen de ánimo de lucro o una **declaración jurada**.

- Si es otra persona la que realiza la solicitud en representación de la persona interesada, el impreso de representación (F0136), debidamente cumplimentado y firmado, acompañado de la documentación señalada en el mismo.

Al presentar la solicitud se entenderá que se aceptan todas las condiciones recogidas en este pliego.

5.- Plazo y lugar para la presentación de solicitudes

Las solicitudes se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Bergara – personándose en la oficina B@Z de la casa consistorial, en San Martín Agirre plaza, 1– o bien telemáticamente –desde el apartado de “Trámites” de la web municipal–, dentro del plazo establecido hasta el 25 de febrero de 2021 (25 de febrero incluido).

Será imprescindible facilitar un número de teléfono y un correo electrónico.

6. Procedimiento de adjudicación

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el ayuntamiento comprobará la presentación de toda la documentación exigida y el cumplimiento de los requisitos por parte de la solicitante. Así mismo, comprobará de oficio:

- Que las personas físicas se encuentran empadronadas en el municipio.
- Que las personas o entidades solicitantes se encuentran al corriente en cuanto al cumplimiento de sus obligaciones para con el Ayuntamiento de Bergara.

El 2 de marzo de 2021 se publicará en la página web la relación provisional de personas y entidades admitidas y excluidas, abriéndose un plazo para presentación de reclamaciones hasta las 10:00 horas del 3 de marzo de 2021.

Una vez estudiadas las reclamaciones, el 5 de marzo de 2021 a partir de las 14:00 horas se publicará la relación definitiva de personas y entidades admitidas y excluidas para su participación en el sorteo.

El sorteo se realizará en acto público, en el ayuntamiento, el día 7 de marzo de 2021, a las 9:00 horas.

Conforme al resultado del sorteo, se adjudicará lote por lote.

Así mismo, los lotes que hayan quedado sin adjudicar se sortearán entre las personas físicas y en este caso se adjudicará un solo monitor por persona.

Con el material sobrante se realizará una segunda vuelta, primero por lotes y luego individualmente.

La adjudicación de nuevos lotes que pudieran surgir hasta marzo de 2021 se realizará a los siguientes en la lista respetando el resultado del sorteo del modo arriba recogido.

A las personas o entidades adjudicatarias se les comunicará el resultado mediante el envío de un e-mail al correo electrónico facilitado por cada una de ellas, donde se les indicará qué lote les ha sido adjudicado y en qué plazo pueden retirarlo.

Nota: Estos monitores adquiridos mediante sorteo no podrán ser en ningún caso objeto de venta ni de enajenación a cambio de un precio. Aquellos que no sean de interés deberán ser devueltos al ayuntamiento.

El acuse de recibo de la comunicación tendrá naturaleza contractual, junto con la solicitud presentada a esta convocatoria y el presente pliego.